

ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ARLOKO G.T: LAN BITARTEKARITZA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez hautaketa-prozesu bat ireki da bi lanpostu betetzeko: Enplegu Eta Prestakuntza Arloko G.T.: Lan Bitartekaritza

Bi kasuetan, kontratuak luzatu egingo dira lanpostu hutsak bete arte (bat 2022-2024ko EPEan eta bestea ondorengo EPEan). Hautaketa-prozesu honen emaitzak erabili ahal izango dira zerbitzu honen beharrak sortzen badira Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan, zerbitzuan zerrenda ofizialak sortu arte..

ESKAITZAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Unibertsitateko lizentziatura edo gradua: Pedagogia, Psikologia eta/edo Ekonomia eta Enepresa zientziak.
- Euskara: C1 edo baliokidea.

LANPOSTUAREN ZEREGINAK:

- Lan-bitartekotzako jarduerak diseinatzea, koordinatzea eta kudeatzea (Enplegu Foroa, Lanbideren eskaintzak)
- Enplegurako orientazio- eta motibazio-jarduerak diseinatzea, koordinatzea eta kudeatzea (informazio-saioak, banakako eta taldeko orientazioa, laneratzeko aholkularitza, prestakuntza-ekintzak...)
- Langabeentzako enplegua sustatzeko jarduerak eta enpresentzako laguntza ekonomikoak diseinatu, koordinatu eta kudeatzea
- Prestakuntza-ikastaroak eta enpresetako praktikak diseinatu, koordinatu eta kudeatzea.

HAUTATZEKO PROZEDURA

1. Lanbideren hautagaitzak jasotzea

- Eskaintza urtarrilaren 29an aktibatuko da, 09:00etan, 162025000856 lan eskaintza zenbakiarekin.
- Izena emateko azken eguna urtarrilaren 29a da, egun hori barne www.lanbide.euskadi.eus/inicio/
- Gehienez ere 40 hautagai jasoko dira, lanposturako ezinbesteko baldintzak betetzen dituztenak, izen-ematearen ordenaren arabera.
- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak ez ditu gainerako hautagaitzak bidaliko, eta, beraz, ez dira baloratuko.
- Hautagaiaren ardura izango da curriculuma eguneratua izatea eskaintzan izena emateko unean, eta ez da onartuko curriculumak jaso ondoren informazioa aldatzea edo zabaltzea. Egiatztatuztat agertzen ez den lan esperientzia ez da kontuan hartuko, ezta puntuatuko ere.

2. Curriculumaren balorazioa: 10,5 puntu gehienez

Esperientzia-irizpideak: Gehienez, 2,0 puntu irizpide bakoitzeko

- 12 hilabete baino gehiagoko esperientzia orokorra orientazioan: 0,04 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- Esperientzia espezifikoa izatea Lanbideren orientazio- eta aplikazio-ekintzetan: 0,04 puntu hilabeteko.
- Lanbideko enplegu-zentroen kudeatzaile gisa esperientzia espezifikoa izatea: 0,04 puntu hilabeteko.
- Bitartekaritzan / eskaintza-kudeaketan berriazko esperientzia izatea lanbide aplikazioan: 0,04 puntu hilabeteko.
- Enplegu / prestakuntza planak koordinatzen eta kudeatzen berriazko esperientzia izatea: 0,04 puntu hilabeteko.

IT Txartelaren irizpideak:0,5 puntu gehienez.

0,1 puntu egiaztatutako IT txartela 05en kolore-talde (multzo) bakoitzeko.

IT txartela 05eko informazio-esteka: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=es&uid=u3571b2fb_139ae6d0619_7fe6

Lanposturako behar diren It txartelak ez baditu, frogaldia amaitu arte luzatuko da egiaztapenerako epea.

3. Elkarrizketa: 9,5 puntu

Curriculumaren balorazioan puntuazio altuena duten 15 hautagaitzak aurrehautatuko dira elkarrizketarako. Pertsona horiek mezu elektronikoko bat jasoko dute, elkarrizketarako hitzordua hartzeko moduaren berri emateko. Elkarrizketara curriculum xehatua, egiaztatutako agiriak (enpresaren ziurtagiria edo antzekoa) eta IT txartelaren gako publikoa eraman beharko dira. Baloratu den eta behar bezala egiaztatu ez den irizpide oro curriculumaren baloraziotik kenduko da.

Lehentasun-ordenaren behin betiko zerrenda irizpide hauetan lortutako puntuazioaren arabera antolatuko da: EGIAZTATUTAKO CURRICULUM-BALORAZIOA + ELKARRIZKETAREN PUNTUAZIOA. Zerrenda hori lehen aipatutako lan-poltsaren arabera izango da.

DATUEN TRATAMENDUA

Lanbideren bidez hautaketa-prozesuan izena emanda dagoen pertsonak baimena ematen dio administrazio eskatzaileari datu pertsonalak tratatzeko, eta azken horrek konpromisoa hartzen du datuak eskaintzan jasotako helburuarekin tratatzeko, eta ezin dizkie datuak hirugarrenei laga, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 216ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan jasotzen den moduan (erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen zirkulazio askeari dagokionez).

Prozesua gardena izan dadin, hautagaiei baloratutako hautagaitzen prozesuan lortutako puntuazioen zerrenda bidaliko zaie. Informazioa Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 32. artikuluan jasotako segurtasun-neurrien arabera tratatuko da.